


ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2025eko urtarrilak 31 · 1341 zenbakia

ANTZERKI JARDUNALDIAK ATE JOKA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

dena
sukaldean
hasen da

dica fama
SUKALDEAK SOFAK

www.urrategiinteriorismo.com • Azpeitia Arretze 9 Eibar Arretze 27



Neinor HOMES
ARRATE HOMES • EIBAR

**EZ PENTSA
BIZI EZAZU!**

ZATOZ PISU PILOTUA IKUSTERA
Obra berriko etxebizitzak:
Gimnasioa | Gourmet aretoa
Garajea | Trastelekua

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Jarraitu gaitzazu!



Jaixak Herrixak Herrixandakok prozesu parte-hartzailea burutu du, eta horren berri eman zuten barixakuan. "Ilusioaren Deiadarra: JHH Biziberritzen" deitu diote azken urtean taldean egin duten barne-hausnarketari, eta bertatik atera dituzten ondorioak aurkeztu dituzte orain.



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE
Fermin Calbeton 4-3, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARITZAK

GAURVE
Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN
Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo



ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia eta

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Miñan / Artedrama

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hortik esanak



Xabiertxo Gorritxategi Agote: 45 urte hil zela

Xabier Gorritxategi Agote 1954. urteko urtarrilaren 31n jaio zen eta 1980. urteko otsailaren 1ean hil. 80. hamarkada Euskal Herria eta Espainiar Estatuaren arteko gatazkan urte odoltsua izan zen. Pentsamendu libertarioa izanagatik, Xabierrek ez zuen oztoporik ikusi abertzaleen arteko borrokarekin bat egiteko. 1970. urtean, Burgosko prozesuaren aurkako protestetan, Roberto Perez Jauregi eibartarra bere ondoan tiroz hil zuen poliziak. Markinako baserri batera bizitzera joana, Ondarruko portuan elektrikari gisa jardun zuen lanean eta inguruko base-rietako esnea banatzen zuen. ETAn sartzea erabaki zuen 1977an eta, poliziarengandik ihesi, Iparraldera jo beharra izan zuen hurrengo urtean. 1980ko otsailaren 1ean ETA erakundeko komando batek Goardia Zibilaren konboi bati eraso egin zion Ispaster inguruan eta sei guardia zibil hil zituen. Ekintza gauzatzen zuten bitartean, granada baten eztrandak Goio Olabarria durangarraren bizitza eraman zuen. Komunikabideetan esan zuten beste komandokide bat zauritua suertatu omen zela. Hurrengo egunean konfirmatu izan genuen arrazoia zutela: jasotako zaurien larritasuna zela eta, 26 urte zituen Xabierren kideek ezin izan baitzuten salbatu eta bere hilotza Ermuko hilerriaren atarian utzi zuten ikurriña batean bilduta.

Eibarko Sortu

Kexatzen gara oraindik lagun askok euskaraz ez dakitelako, eta ikasteko borondaterik ez dutela ere adierazten dugu. Arrazoi osoz. Baina norbait gutxi jakinda euskaraz egitera ausartzen bada, eta erdipurdi moldatzen bada, orduan ere barre egiten diogu. Euskaldundu den erdaldu-nari ere kritika egiten diogu, ondo egin arren, "naturala" ez delako bere ebakera. Inoiz ez gaude konforme. Salatzea agintari batek duen euskara maila eskasa dela azken hogeit urtean, zipitzik ere ez duela aurreratu, eta zekien euskara hori fosildu zaiola esatea zilegi delakoan nago, kargudun horri gaztelaniaz ez lioketelako barkatuko. Baina ez ote da hobea euskararendako Carlos Iturgaiz Patxi Lopez baino?

LEIRE NARBAIZA, irakaslea

Urtero bezala, Gabonen bueltan azterketak egiten dituzte unibertsitatean. Urtero bezala, San Sebastian egunean azterketarik ez egiteko eskatu diote ikasleek irakasleari. Eta hark proba eguna aldatu die, festara joan daitezten. Berdin dio hainbat ikasle donostiarrak edo gipuzkoarrak ez badira. Arauak? Horiek diktadura komunisten kontuak dira. Pozik eta alai bizi nahi dugu. Beti bete apetak; bestela, ume kasketak. Zoriontsuak izan nahi dugu diktablanda kapitalistaren askatasun plastifikatuan.

JOSE MARI PASTOR, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PEKO → Pertsona batek dituen ondasunak. Gaztelera 'peculio'. "Hartuko heuke hik haren pekua!".

IÑOREN PEKORA IBILLI → Besteen kolkotik ibili. Gaztelera 'a cuenta gorra'. Horrek ez jok txikito bat be pagatzen, beti iñon pekora".

1952

73 urte gizonak modara janzten

Argazkia zehazki urte horretan egin zuten ala ez jakiteko modurik ez daukagu, baina jakin badakigu gaur egun Toribio Etxebarria kalean zabalik jarraitzen duen dendak 1952. urtean zabaldu zituela atea lehen aldiz. Orduan ere, gizonentzako moda saltzen zuten.

FOTO PLAZAOLA



Argazki zaharra

Farmaziak

BARIXAKUA 31
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ZAPATUA 1
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
DOMEKA 2
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 3
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 4
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 5
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 7
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Beatriz Larrañaga Lizarralde.**
86 urte. 2025-01-21.
- **Milagros Pallezo Rodriguez.**
96 urte. 2025-01-22.
- **Jose Luis Sastre Boal.**
83 urte. 2025-01-22.
- **Jose Antonio Urretxu Romatet.**
59 urte. 2025-01-24.
- **Jose Domingo Egurrola Azpiazu.**
93 urte. 2025-01-25.
- **Pilar Markiegi Aranburu.**
91 urte. 2025-01-25.
- **Esteban Lopez de Zubiria Ros.**
69 urte. 2025-01-26.
- **Lidia Marcos Miguel.**
86 urte. 2025-01-28.



Otsailaren 20rako pentsioen igoera bermatu ezean, kalera irtengo dira berriz

Espainiako Kongresuak abenduan onartutako lege dekretua indargabe laga nahi duela eta, haserre dago Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua, eta hori izan da gai nagusia aste honetan Untzagan pentsio duinen alde egindako elkarretaratzean. Horrekin batera, Eibarko Pentsiodunen Taldekoak HEL Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadurak jasotzen hasi dira, eta datorren astean ere mahaia ipiniko dute, sinatu nahi dutenentzat. Herritar guztiak deitu dituzte, beraien sinadurarekin ekimena babestu dezaten.

Omnibus Lege-Dekretuan jasotako pentsioen igoera indargabeztearen aurrean, Estatuko Herri eta Erkidegoetako pentsiodunen Plataforma eta Mugimenduak adierazpen bateratua egin du. Esan dutenez, ez dute atzera egingo: “Gure erreakzioa sumindura besterik ezin da izan. Askok kostatu zaigu lortutakoa, eta ez dugu atzera pauso bakar bat ere onartuko”. Otsailaren 20rako pentsioen igoera bermatu ezean, otsailaren 22an kalera irtengo direla adierazi dute, gogoratuz ez dela lehen aldia izango: “2018an egin genuen bezala”.

Beheko Tokia gizarte zentroak bi hitzaldi antolatu ditu otsailerako

Datorren hilabeterako bi hitzaldi antolatu dituzte Karmen kalean daogoen Beheko Tokia gizarte zentrokoek, biak ere segurtasunari lotutako gaietarako. Otsailaren 13an izango da lehena, *Lapurretak eta iruzurrak* ('Robos y estafas') izenburukoa. Hitzaldia 17:00etan hasiko da. Eta otsailaren 20an, ordu eta toki berean, bide-heziketari buruzko saioa egingo dute. Biak Erztzaintzak emango ditu, eta interesa duten herritar guztiarentzat irekiak izango dira saioak.



“Bizitza onerako alternatibak” erakusketaren aurkezpena Andretxean

Lumaltik Herriak elkarteak Gipuzkoan egindako topagune eta prestakuntza ardatz dituen *Bizitza onerako alternatibak* erakusketak aurkeztuko dute astelehenean Andretxean, 18:00etan. Lumaltik Herriak GGKEak, beste kolektibo batzuekin batera, iaz Gipuzkoan egindako lan eta heziketa prozesuetan bideratutako hausnarketatik

abiatuta sortutako material bisualak eta gogoetak biltzen ditu erakusketak: “Askotariko emakumeen jakintzak eta esperientziak hainbat espazio ezberdinetan azalera izan da proiektuaren funtsa, herri ezagutza prozesu politiko eta eraldatzaile gisa ulertuta”. Apirilaren 29ra arte egongo da zabalik aipatutako erakusketak.



Julen Saldias zarauztarra da Eibarko Udaltzainburu berria


Azken sei urteetan Udaltzainburua izan den Javier Ziaran gaur jubilatua egin dela eta, Julen Saldiasek bete du bere tokiak. Udaltzainburu berria aurreko astean hasi zen Eibarren lanean, baina aurretik eskarmentua dauka: Zarautzen hasi zen udaltzain lanetan, eta bertan hamabost urte eman ditu. Ondoren, beste bi urtez aritu da Deban, hango Udaltzainburu. Eibarrera etortzeko aukera suertatu zaiola eta, pozik heldu dio erronka berriari

eta, esan digunez, lanean hasteko gogotsu dator.

Bestalde, Udaltzaintzat erosi dituzten hiru automobil berriak erakutsi zituzten barixakuan Untzagan. BMW markakoak dira, %100 elektrikoak, eta lizitazio-prozesu batean, hainbat eskaintza jaso eta gero eskuratu ditu Udalak. Lizitazioa 192.000 euroan esleitu da, BEZa barne, 48 hilabeterako (lau urteko iraupena duen renting-kontratua izango dute).

Zaldibar Argituk ekitaldia antolatu du hondamendiaren bosgarren urteurrenean

Otsailaren 6an bost urte beteko dira Eitzagako zabortegea amildu zela eta, hondamendia gogoan, Zaldibar Argituk ekitaldia antolatu du: “Otsailaren 9an, 12:30ean, Eitzagan batuko gara Joaquín Beltrán eta Alberto Sololuzeko gogoratzeko, eta erantzukizunak eskatzeko. Dei egiten diegu herritarrei bertaratu daitezen”.



Pilar Marquiegui Bolumburu

2025/01/25

“Amama, zenbat une goxo, zenbat oroitzapen gogoangarri utzi dizkiguzun! Orain besarkatu indarrez zerruan zure zain dauden bi izar horiek.

- ETXEOAK -

Mariana Elguezua Zabaleta

1924/03/29
2025/01/29

“Beti egongo zara bizirik gure bihotzetan”

Bere aldeko HILETA ELIZKIZUNA egingo da urtarrilaren 31n (ostirala), 19:00etan, Karmelitetan.



Debarrenak Atxikitako Helmuga Turistiko Adimendunaren bereizgarria jaso du

Urtero bezala, Debarrenako ordezkari-talde bat Madrilen egon da, egin berri den Fitar Nazioarteko Turismo Azokan gure eskualdeko eskaintzaren berri ematen, eta bertan eman diote Debarrenari Helmuga Turistiko Adimendunaren bereizgarria. 2026ko abendura arteko balioa duen izendapen horrek DTI eredia ezartzen hasi dela egiaztatzen du. Azaldu dutenez, "Atxikitako Helmuga Turistiko bihurtzea da helmuga. Urrats garrantzitsua da turismo-garapenaren abangoardiako helmugen taldean

parte hartzeko, eta gobernantzan, jasagarritasunean, irisgarritasunean, berrikuntzan eta teknologian oinarritutako etorkizuneko estrategia du ardatz egituratzaile".

Debegesa eskualdeko garapen agentziak garatu du Debarrena Helmuga Turistiko Adimendunaren Sarera atxikitzeko prozesua. Prozesu horrek Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren laguntza instituzionala eta ekonomikoa izan du, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bitartez.

Eibar eta Ermua arteko bidegorria eraikitzeko lan-mahaia sortu dute

Eibar, Ermua eta Zaldibarko alkatetateak elkartu dira orain dela egun batzuk, lehen bi herriak lotuko dituen eta hirugarrenetik pasako den bidegorriaren proiektuari buruz berba egiteko. Oztopo administratiboak tartean direla, aipatutako proiektua geldirik dago 2022az geroztik, baina hiru udalerrietako alkateek

horrekin amaitu eta aurrera egitea nahi dute. Obra horrek planteatzen dituen arazo administratiboak aurre egiteko, talde-teknikoa martxan ipintzea erabaki dute. Alkateen arabera, Zaldibarrek aurre egin beharreko izapide administratiboak izango lirake oztopo nagusienetakoa.



Astelehenean San Blas opilak bedeinkatzeko ospakizunak egingo dira parroquia guztietan

Otsailaren 3an ospatzen den San Blas egunerako elizkizun bereziak egingo dituzte herriko parroquia guztietan. Horrela, astelehenean eibartar askok eramango dituzte sanblasak bedeinkatzera, gure herrian horrenbeste maite dugun ohiturari eutsiz. Pedro Laskurain Eibarko parrokoak jakinarazi digunez, San Blas opilak bedeinkatzeko ospakizun guztiak astelehenean bertan egingo dira, jarraian zehazten ditugun orduetegiari jarraituta: 10:30ean San Jose Obrero elizan (Urki); 11:00etan, Karmengo Amaren elizan eta San Pio X.a elizan; 12:00etan, El Salvador elizan (Amaña); 18:00etan, San Agustin elizan; eta 19:00, Karmengo Amaren elizan. Goizeko guztiak opilen bedeinkapenak egiteko ospakizunak izango dira, eta arratsaldeko bietan, berriz, opilak bedeinkatzeaz gain, meza ere ospatuko da.



Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte bihar Amaña eta San Andres herri ikastetxeetan

Astelehenean zabalduko du Hezkuntza Sailak 2025-2026 ikasturteko aurrematrikularako eskabideak aurkezteko epea. Agintarien arabera, euskal eskola publikoan matrikulatzeko baldintzek gogobetetze-maila altuak lortu dituzte. Begoña Pedrosa Hezkuntzako sailburuak azaldu duenez, "eskola-segregazioari aurre egiteko neurriak aplikatzen jarraituko da, eta 2, 3 eta

4 urteko geletan plazen erreserba ere aplikatuko da". Aurrematrikulara-kanpainarekin batera, ikastetxe askok ate-irekiak prestatu dituzte, lehen aldiz eskolara joango diren haur eta familiek eskola zelakoa den bertatik bertara ikusi dezaten. Hala egingo du bihar Amaña herri ikastetxean, 10:30etik 13:30era. Bertako Guraso Elkartetik herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte: "Tailerrak,



ipuin-kontalariak, jolasak, musika... denetarik izango dugu. Eta eskola beste egunen batean bisitatzeko arazorik ez dago, ikastetxearekin kontaktuan ipini eta hitzordu personalizatua emango diegu".

San Andres herri ikastetxeak ere bihar egingo ditu ate irekien jardunaldiak, 16:30etik 19:30era. Hor ere jolasak, ikasleen erakustaldiak, tailerrak... egingo dira. Urkizu ikastetxean hurrengo aste osoan irekiko dituzte ateak, otsailaren 3tik 7ra, 12:30etik 13:30erako ordutegian. Eta, datorren asteburuan, Aldatze ikastetxearen txanda izango da, ate-irekiak otsailaren 8an ospatuko ditu eta.



merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 795 419
Armagin, 3-5 behea



Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



TANATORIO EIBAR



TANATORIO CUBA TORO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xivilon, 1/n. SIGMA industrialdea (Olasolo hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Hezkuntza publikoko langileen grebak aurrera jarraitzen du

Hilaren 22an eta 23an hezkuntza publiko ez unibertsitarioko irakasleek greba egin ondoren, aste honetan Haurreskola Partzuergoko langileen eta sukaldari eta garbitzaileen txanda izan da, hilaren 28an eta 30ean, hurrenez hurren. Haurreskolako langileak, gainera, Eibarren mobilizazioa egitera zeuden deituta, Partzuergoaren egoitzatik Untzagaraino manifestazioa egin zutelarik.

Manifestazioko
ARGAZKIAK eta BIDEOA



Hezkuntza publikoko langileek greba zikloa hasi zuten hilaren 22an, otsailaren 20an amaituko dena. Horrela, aste honetako greba egunak pasata, hurrengo greba eguna Haurreskola Partzuergoko langileek egingo dute otsailaren 12an eta 13an, ondoren sukaldariak eta garbitzaileak 19an eta 20an, eta azkenik hezkuntza publiko ez unibertsitarioko irakasleen txanda izango da 26an eta 27an.

Urtarrilaren 22 eta 23ko greba egunen jarraipenarekin pozik agertu dira CCOO, ELA, LAB eta STEILAS sindikatuak. Eurek emandako datuen arabera, grebara deituta zeudenen %75ak egin zuen greba. Eibarren, adibidez, honako datuak jaso zituzten zenbait ikastetxetan: San Andres eskolan %100ak egin zuen greba, Armeria eskolan %37ak eta Amaña herri-ikastetxean %41,67ak.

Horien kasuan, 2010eko lan-hitzarmena berritzeko eskakizuna egiten dute. Horrela, zortzi dira eskakizun nagusiak: lan-zamak

arintzea (irakastorduak etapa guztietan murriztea, baliabide hornikuntza handitzea, eta burokrazia eta zama arintzeko neurri zehatzak ezartzea), Gazteberritze plana (erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea, eta lanaldia murrizteko eta metatzeko eskubidea onartzea), galdutako eros-ahalmena berreskuratzea, enplegua egonkortzea eta bermatzea (Lanpostu Zerrendak sindikatuarekin negoziatzea eta lanpostuak oposaketetara eta lekualdatzera ateratzea, interinitate-tasa erreala jaistea, lanpostuak estrukturalizatzea, eta Irakasle Teknikoen mantentzea adostea Lanbide Heziketako Mahai Propioetan), azken urteetan Hezkuntza Sailak ezarritako murrizketak bertan behera lagatzea, ordezkoen lan baldintzak hobetzea (ordezkoen araudia negoziatzea eta berritzea, eta udako ordainketa berreskuratzea), zaintzaren ikuspegitik lan eta bizitza uztartzeko neurriak ezartzea, eta lan-osasun, berdintasun- eta euskara-planak garatzea.



Haurreskolako langileak kalera irten ziren martitzenean Eibarren. SILBIA HERNANDEZ

Haurreskolako langileen manifestazioa

Haurreskolako langileei dagokienez, martitzenean eta eguaztenean eduki zituzten lehen bi greba egunak eta, sindikatuarekin negoziatuz, Amañako haurreskolako langileen %60ak egin zuen greba, Arrateko Andra Marin %100ak eta Orbean %60ak. EAEko datuei begira, grebak %85etik gorako jarraipena izan zuen sindikatuen esanetan.

Martitzenean Eibarren zeuden deituta mobilizazioa egiteko, Otaola hiribidean baitago Haurreskolak Partzuergoaren egoitza. Horrela, hainbat langile elkartu ziren bertan eta Untzagaraino manifestazioa egin zuten.

Haurreskolako langileek 2009ko lan-hitzarmena berritu nahi dute eta zazpi dira euren aldarrikapenak: lan-zamak arintzea (plantilak esleitzeko irizpideak zehaztea, kudeaketa baliabide teknologikoak eguneratzea, eta urteko eta asteko jarduna eta hezitzaileen arreta zuzeneko orduak murriztea),

aurre erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea, galdutako eros-ahalmena berreskuratzea, enplegua egonkortzea eta bermatzea, ordezkoen lan baldintzak hobetzea, lizentziak eta baimenak hobetzea, eta lan-osasun, berdintasun- eta euskara-planak garatzea.

Sukaldariak eta garbitzaileak

Atzo eta gaur hezkuntza publikoan lan egiten duten sukaldariak eta garbitzaileak daude grebara deituta. Euren 2009ko lan-hitzarmena berritzea eskatzen dute eta zortzi puntu aldarrikatzen dituzte: lanaldiaren eta ratioen murrizketa, adinagatik jardun murrizketak handitzea, galdutako eros ahalmena berreskuratzea eta soldatak igotzea, enplegua egonkortzea eta bermatzea, ordezkoen lan-baldintzak hobetzea, funtzioak negoziatzea eta adostea eta kategoriak egokitzea, zaintzaren ikuspegitik lan eta bizitza uztartzeko neurriak ezartzea, eta lan-osasun, berdintasun- eta euskara-planak garatzea.

Joan den astean San Andres eskolan %100ak egin zuen greba, Armeria Eskolan %37ak eta Amaña herri-ikastetxean %41,67ak

Aste honetan, bestalde, Amañako haurreskolako langileen %60ak egin zuen greba, Arrateko Andra Marin %100ak eta Orbean %60ak



Aurtengo kartela Naiara Sarasketa eibartarrak diseinatu du.

48. Antzerki Jardunaldiak motorrak berotzen

Urtero gure herriak izaten duen kultur ekintza nagusia ate joki dugu dagoeneko. Jardunaldiei hasiera emango dien solasaldirako ia hilabetea geratzen bada ere, interesatuak hasi dira alde aurretiko hitzorduen banaketari lotzen, ondoren leihatilan sarrera horiek jasotzeko. Bestalde, asteburu honetan bertan auzoz auzo ibiliko dira Antzerki Jardunaldiak aurkezten, kalean nabarmenduko duzuenez: adi alfonbra gorriari. Hasi da antzerkia!

Informazio gehiago:



Otsailaren 25ean hasi eta apirilaren 11n amaituko dira 48. Eibarko Antzerki Jardunaldiak, eta, beti bezala, programa zabala prestatu dute antolatzaileek. Horren berri

eman zuten martitzenean udal-txean egindako aurkezpenean, Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak, Mari Jose Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak, eta Ana Lopez Asensio Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustapeneko eta Kultura eta Sormen Industrietako zuzendariak.

Solasaldia hasteko

Edizio honetan Toni Acostak eta Juan Carlos Rubiok izango dute Jardunaldiak zabaltzeko ardura, otsailaren 25ean, 19:00etan Coliseo antzokian egingo den inaugurazio-ekitaldian. Solasaldia Irene Hernando aktore eibartarrak aurkeztuko du, eta sarrera doan izango da. Antzerkiak egoera desberdinetara egokitze duen gaitasunari buruzkoa izango da solasaldia, eta



Estilo desberdinetako eskaintza izango da, beste behin, Antzerki Jardunaldietako.



Martitzenean aurkeztu zuten aurtengo edizioko Jardunaldietako programazioa. SILBIA

"Harremanak" titulua izango du. Oraingoan ere antzezlanak bi tokitan, Coliseo antzokian eta Hezkuntza Esparruko aretoan izango dira; hori bai, betiko lez, gehienak Coliseon eskainiko dituzte, bost joango dira aspaldiko Unian. Eta ekitaldi guztietako hasiera ordua 19:00etarako dago jarrita; bakarrik bi kasutan hasiko da bi ordu lehenago, 17:00etan, "Moko" euskarazko haur-antzerkia eta "Chek-Out" zirku-clowarekin. Esan dutenez, iaz 8.000 lagun bildu zituzten Jardunaldiek, eta oraingoan kopuru hori gainditzea nahiko lukete. Aurrekontua 230.000 eurotik gorakoa da eta hortik "gutxi gorabehera %30 aktoreen konpainietarako da"; bestalde, Jardunaldietan parte hartuko duten aktoreen kopurua 98raino igoko da.

Heisenberg eta Miñan

Otsailaren 26an eta 28an, 19:00etan, "Una madre de película" komediaz gozatzeko aukera egon-

go da. Obraren protagonista Toni Acosta da, eta Juan Carlos Rubio zuzendaria. Hasierako solasaldiko protagonistak hartuko dituen lana izango da guztietatik bitan taularatu den bakarra, beti ere azken uneko aldaketarik ez bada izaten, jendearen erantzunak hala eskatuta.

Chek-out (zirkoa), Anacelia Álvarez eta Adrián Conderen zuzendaritzapean, martxoaren 2an izango da, eta La loca historia del Siglo de Oro (zirku), Javier Uriartek zuzendua, martxoaren 6an. Martxoaren 7an, Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantán obra antzeztuko da (tragi-komedia), María Goiricelayak zuzendua. Martxoaren 9an eta 10ean bi lan ikusi ahal izango dira euskaraz: Heisenberg, Ramón Agirre eta Naiara Arnerorekin, Hezkuntza Esparruan, eta Miñan, Coliseo antzokian. Eva Isanta, Toni Acosta, Angel Martín eta Zuhaitz Gurrutxaga dira Coliseotik igaroko diren aktore nabarmenetako batzuk, eta seguru une ahaztezinak utziko dituztela.

>>> 230.000 eurotik gorako aurrekontua dute aurtengo Jardunaldiek

>>> Ehun aktore inguruk hartuko dute parte 20 lanetik gorako ekitaldian



"Hona" dantza ikuskizuna izango da Coliseon martxoaren 20an. DANTZAZ

>>> Ramon Agirre, Ander Lipus, Zuhaitz Gurrutxaga, Ane Pikaza, Toni Acosta eta Angel Martin daude aktoreen artean

22 konpainia guztira

Martxoan zehar ere programazio zabala egongo da: Iribarne (komedia bufoa), Hoy no estrenamos (komedia), Moko, Indalecio Bizkarrondo "Bilintx" (haurrentzako antzerkia euskaraz), Renata (komedia euskaraz), Hona (dantza), Las que gritan (komedia Eva Isantaren emanaldiarekin), Lutnier, Futbolistoc (bakarrizketa Zuhaitz Gurrutxagarekin), 14.4 (drama), Filtro (antzerki dokumentala), Nuevo Material (bakarrizketa) eta La maldad, o los raticos oscuros de Shakespeare (komedia musikala).

Jardunaldiak apirilean amaituko dira, lau antzezlan hauekin: Los lunes al sol (tragikomedia), Mujeres, teatro a la carta (drama), Zorretan (tragikomedia euskaraz) eta Los reyes católicos, Colón y otras historias (tragikomedia). Era berean, martxoaren 5ean 35 urte eszenara begira dokumentala ikus ahal izango da, eta martxoaren 27an, "Antzerkia zineman/El teatro en el cine" saileko laburmetraiak.

Guztira 22 konpainia igaroko dira 2025eko Antzerki Jardunaldietatik: 25 emanaldi izango dira, horietatik zortzi euskaraz. Gainera, obra bat kalean antzeztuko da. Guztira, zazpi komedia (euren artean bat bufoa eta beste bat musikala), lau tragikomedia, hiru drama eta bina zirku, dokumental, dantza eta monologo izango dira, haur-antzerki lan batekin batera. Konpainiei dagokienez, gehienak euskaldunak dira: Hikak eta La Dramática Errantek bina lan aurkeztuko dute, eta banarekin izango dira Tanttaka Teatro, Artedrama, Gorakada, Kamikaz Kolektiboa, Dantzaz, Altraste Danza eta gure herriko La Novena. Eibartarrez osatutako konpainiarekin itxiko dira aurtengo Jardunaldiak, Ernesto Barrutiaren aginduetara eskainiko duten tragikomediarekin. Sasoi batean Hezkuntza Esparruko ikasleekin osatutako antzerki taldeak eskaintzen zituzten lanek lekukoa pasatu diote beteranoagoak diren horiei. Oraingoan ez da nazioarteko ordezkariarik

>>> Hiru orduko "Iribarne" komedia bufoa izango da iraupen luzeenekoa: 3 orduko lanean atsenaldia ere izango da

izango eta beste konpainia guztiak estatukoak izango dira: Madrildik badatoz bost, eta besteak Asturias, Extremadura, Galizia, Valentzia, Aragoi eta Errioxakoak dira.

"Iribarne" komedia bufoak hiru ordu irauango du eta, iraupen hori kontuan izanda, atsedena ere izango du. Beste lan guztien iraupena 60 minututik 105eraino doa, gehienak ordu eta erdiaren buelta-koak badira ere. Prezioetan ez dago alde handirik eta iazkoari eusten zaio: funtzio gehienak 12 eurotan eskaintzen dira, hirutan 15 euro kobratuko da, beste lautan 5 euro bakarrik eta Angel Martinen monologoa izango da garestiena, 20 eurotan. Zuhaitz Gurrutxagak, bestalde, iaz Eibarren izan bazen ere "Futbolistoc" bere lana euskaraz eskaintzen, oraingoan gazteleraz egingo du emanaldia.

Antzerkitik kanpo, Antzerkia Pantailatan atalaren barruan "35 urte eszenara begira" Hikaren dokumentala eskainiko dute martxoaren 5ean eta, horrekin batera, An-



"La loca historia del Siglo de Oro" eskainiko da martxoaren 6an. LA ESCALERA DE TIJERA

tzerkia Zineman atalaren barruan, Asier Errasti Eibarko XXV. Film Laburren Jaialdiko sei laburmetrai proiektatuko dira martxoaren 27an.

Sarrerren salmenta

Lekim Animazioak konpainia arduratuko da Eibarko kaleetan Antzerki Jardunaldien zabalkundea egiteaz, eta asmo horrekin irtengo dira kalera gaur, bihar eta etzi, alfombra gorri eta guzti: gaurkoan 19:30etik 21:30era arte, eta bihar eta etzi 12:30etik 14:30era. Antzerki Jardunaldietarako sarrerren salmenta bihar hasiko da, aurrez-aurrekoa Coliseo antzokian, eta bestela Internet bitartez, Kutxabanken erosteko aukera ere badago. Edozein modutan ere, sarrerak modu presentzian erosteko, aurretiazko hitzordua hartu beharko da 17:30etik 19:30era Coliseo antzokian. Eta modu birtualean www.kutxabank.es webgunean eskatu ahal da. Halaber, funtzioak hasi baino ordubete lehenago erosi ahal da sarrerak, Coliseon bertan.

>>> Eibarko "La Novena"-koek emango diete amaiera aurtengo Jardunaldiei, Ernesto Barrutiaren gidaritzapean

Eibar, ia jaiotzarik ez duen herria

Eibarko biztanleriaren zati handi bat Eibartik kanpo jaio da, dela Mendaroko ospitalean, dela Donostian, Gurutzetan edo beste herrialde batean. Pagei kaleko amaetxeak atek itxi zituenetik, gutxi dira herrian jaio direnak (etxean sortu direnak, adibidez), euretako askoren NAN-ean jaioterra Eibar jartzen duen arren. Orain, ostera, ezin da aldatu eta jaiotzen erregistroa haurraren jaiotza- lekura mugatzen da.



Erregistro Zibilaren 20/2011 Legearen ondorioz eman da aldaketa hori eta ezinegonaren sortu du hainbat gurasoren artean. Izan ere, ez dute ulertzen zergatik ezin dituzten euren seme-alabak beraiek bizi diren udalerrian jaio direla bezala inskribatu, orain dela urte batzuetara arte egiten zen bezala. Horren inguruko zalantzak argitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiarekin harremanetan jarri gara eta gure galderak Carlos Cordero Bilboko Erregistro Zibileko arduradunari igorri dizkiote.

Corderok esan digunez, Erregistro Zibila, tradizioz, lurralde-erregistroa izan da. Hau da, inskriba daitezkeen egitateak (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak...) gertatzen diren tokiaren arabera sartzen dira liburueta. “Antzina, Erregistroko liburuak paperezkoak ziren, eta beharrezkoa zen interesatuak gertakizuna gertatzen zen herriko bulegora joatea idazpena edo edozein ziurtagiri eskatzera, bulego horretan bakarrik zaintzen baitzen liburua”, bere berbetan.

1991. urtean, jaiotzei buruzko printzipio hori aldatu egin zen herritarrei lagundu asmoz. “Hala, gurasoak bizi ziren herriko bulegoan eman ahal izan zen izena, eta, gerora, lekualdatu beharrik gabe eskuratu ahal izan ziren ziurtagiriak”, azaldu digu Corderok. Gainera, lana kentzen zitzaizkien ospitale handiak (Gurutzeta, Basurtu...)



Ebarren bizi diren haur gehienak Mendaroko ospitalean jaiotzen dira eta, gurasoak Eibarren bizi arren, legalki hau da euren jaiotza-lekua.

zeuden herrietako erregistroei, inskripzio- edo ziurtagiri-eskaeraz beteta zeudelako. Horretarako, ‘fikzio legala’ erabiltzen zen, jaio berriak gurasoak bizi ziren tokian ‘jaiotzen’ zirela adieraziz. “Horrela bakarrik errespetatu zitekeen lurralde-eskumenaren printzipioa”, letraduaren berbetan.

Gaur egun, teknologia berriei esker, liburuak digitalak dira eta sarearen bidez eskura daitezke. “2011n Erregistro Zibilaren lege bat argitaratu zen, ospitaleak berak izen-ematea tramitatzea ahalbidetzen duena, gurasoek Erregistroko bulego bakar batera ere joan behar izatea saihestuz. Eta izen-ematea ospitaleak tramitatzen ez badu, gurasoek beraiek aukeratutako bulegora jo dezakete, bai izen-emate eskaera egiteko, bai nahi dituzten ziurtagiriak eskatzeko”, diosku Corderok.

Nortasun kulturala eta estatistikak

Lege honek jaiotako haurren nortasun kultural eta administratiboan izan ditzakeen ondorioei buruz galdetuta, zera dio Corderok: “Euskadiko edozein herritarri dagokion euskal auzotasun zibila eta tokiko auzotasun zibila funtsean bizilekuari lotuta dago, hau da, erroldatzeari. Jaioterra ere garrantzitsua da, baina ordezko irizpide gisa baino ez du jarduten, zalantzarik izanez gero, Kode Zibilak (14. artikulua) eta Euskal Foru Zuzenbide Zibilari buruzko 5/15 Legeak (10. eta 11. artikulua) eta horiekin bat datozenak” ezartzen dutenaren arabera”.

Hori argituta, kontuan hartu al dira neurri honen epe luzerako ondorioak demografiari eta biztanleria-estatistikei dagokienez? “Espainiako Estatistika Institutuak ustiapen estatistikorako mekanismoak ditu, bai jaiotza-datuak, bai erroldatze-datuak”, erantzun digu Corderok.

Erregistro Zibilaren 20/2011 Legea indarrean jarri zenetik, jaiotzen erregistroa haurraren jaiotza-lekura mugatzen da

Jaiotza-inskripzioen inguruko informazioa





Ba al da aldaketarako aukerarik?

Jaiotzen erregistroaren inguruko lege honek ezinezona sortu du gizartearen zati batean eta, gauzak horrela, legea aldatzeko aukerarik ote dagoen galdetu diogu Corderori. “Lege aldaketa Estatuko Parlamentutik pasatzen da nahitaez eta gaur egun ez dugu horren inguruko inongo proiekturen berririk”, erantzun digu.

Guraso batzuek erregistroa egin ondoren jaiotza-lekua aldatzen saiatzen dira, baina horrela ere ez dute helburua lortzen. “Idazpen bat zuzendu ahal izango da soilik jasotzen duen informazioa okerra denean, legearen 91. artikulua araber. Jaiotza gertatu den tokiko datu objektibo eta ziurra, legearen 49. artikuluan ezarritakoaren araber, ezin da zuzendu”, argitu digu letraduak.

Orduan, nola orekatzen da xedapen hau gurasoen eskubidearekin beren seme-alaben nortasun administratiboaren alderdi batzuk aukeratzeko? “Legeak egitate inskribagarritzat jotzen dituen egitate objektiboak (hala nola jaiotza, ezkontza edo heriotza), ez dira eskuragarri, ez daude interesdunen borondatearen autonomiaren mende. Bai, ordea, auzotasun zibilarrekin zerikusia duten alderdiak, non borondatearen autonomia zabalagoa den”, erantzuten du Corderok.

Aurrerapauso handia

Corderoren ustez 20/2011 Legea “aurrerapauso handia” da, “Erregistroko bulegoak herritarrengana hurbiltzea dakarrelako”. Orain, ospitaleak izena emateko izapidea egin dezake eta, gero, herritarrak sarbide digitala eta leihatila bakarra izango du jaiotza-inskripzioa egiteko edo ziurtagiriak lortzeko aukeratzen duen edozein bulegotan.

20/2011 legeak funtziona dezan, Erregistro Zibilarren bulegoak Dicareg sistema informatikoa ezarrita eduki behar du. EAEn dagoeneko ezarrita dago, baina Estatuko gainerako lurraldeetan oraindik lan dezente dago egiteko. “Herri txiki askotan paperezko liburuekin funtzionatzen jarraitzen dute”, diosku Corderok. “Euskadi abantailan dago gai horretan, DiciReg aplikazioa eraginkorra baita lurralde osoan, eta, gainera, liburu zaharren digitalizazioan aurrera egiten ari da egunegun. Horri esker, 1870etik aurrera jaiotako pertsonen jaiotzak ziurtatu ahal izango dira laster”.



Inskripzioa ospitalean edo bi gurasoak errolatuta dauden herrian egin, jaiotzen erregistroa jaiotza-lekura mugatzen da.

Etxe beroaren garrantzia: neguari aurre egiteko gakoak



Negua iristean, gure etxeetan eta lantokietan tenperatura gozoa izatea lehentasuna da. Giro hotzegia deserosoa izateaz gain, gure osasunari eta produktibitateari ere eragiten dio. Horregatik, funtsezkoa da beroari eusteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko zenbait estrategia ezagutzea.

Etxean beroari eusteko aholkuak

Isolamendu termikoa: Ondo isolatutako etxebizitza batek bero-galera murrizten du. Gomendagarria da kristal bikoitzeko leihoak erabiltzea, atea eta leihoak burleteekin zigilatzea eta, ahal bada, sabaien eta hormen isolamendua hobetzea.

Berokuntzaren erabilera eraginkorra: Berogailua programatzea gomendatzen da, egunegun 19 eta 21°C arteko tenperatura konstante eusteko eta gauez 17°C ingurura jaisteko, atsedean optimoa hartzeko.

Eguzki-argia aprobetxatzea: Egunegun, garrantzitsua da gortinak eta pertsianak irekitzea, eguzkia sartzen uzteko eta berotasun naturala aprobetxatzeko. Gauez itxteak tenperaturari eusten laguntzen du.

Ehun egokiak erabiltzea: alfonbrak, gortina lodiak eta mantak, etxeko beroari eusten laguntzeko. Gainera, etxean arropa lodixegoa erabiltzen badugu, murriztu egingo dugu berogailuaren gehiegizko erabilera.

Aireztapen kontrolatua: Hotza egin arren, beharrezkoa da etxea egunegun gutxienez 10 minutuz aireztatzea airea berritzeko eta hezetasun eta kondentsazio arazoak saihesteko.

Temperaturak lan-ingurunean duen garrantzia

Lantokian tenperatura egokia izatea funtsezkoa da langileen osasunerako eta errendimendurako. Neguan tenperatura 19 eta 22°C artean izatea gomendatzen da, konfort termikoa bermatzeko, energia alferrik

galdu gabe. Hauexek dira laneko tenperatura egoiaren onurak:

Produktibitate handiagoa: Giro hotzegiak edo beroegiak eragina izan dezake kontzentrazioan eta lan-errendimendua murriztu dezake.

Ongizatea eta osasuna: Tenperatura orekatuari eusteak arnasketako gaixotasunak eta hotzarekin lotutako giharretako arazoak izateko arriskua murrizten du.

Energia-eraginkortasuna: Berokuntza erregulatuak eta sistema eraginkorrak erabiltzeak energia-kontsumoa eta kostuak murriztea ahalbidetzen du.

Laneko erosotasuna hobetzeko neurriak

- Berokuntza eraginkorra erabiltzea sistema programagarriekin muturreko tenperaturak saihesteko.
- Bero ekitatiboa lan-eremu guztietan banatzea.
- Saihestu aire-korronteak, leihoetan eta ateetan egon daitezkeen ihesak zigilatuz.

- Geruza gehigarri gisa, jantzi egokiak erabiltzen uztea, tenperatura gehiegi igotzeko beharra saihesteko.

Neguan hotzari aurre egiteak, ongizatea hobetzeaz gain, gure osasunari eta produktibitateari ere laguntzen dio. Etxean zein lanean, energia-eraginkortasuneko neurriak aplikatzeak eta tenperatura orekatuari eusteak hilabete hotzetan giro eroso eta osasungarriaz gozatzeko aukera ematen digu.

Berokuntza-sistemak

Berokuntza-sistema erabiliena aldatu egiten da bizi garen lekuaren arabera, klima-aldeak direla eta. Hala ere, hauek dira ohikoenak:



1. Gas naturala: Hiriguneetako sistemarik hedatuena da. Erradiadoreak edo zoru erradiatzailea elikatzen duten galdarekin erabiltzen da.

2. Aerotermia eta bero-ponpak: Gero eta ezagunagoak dira euren eraginkortasun energetikoagatik eta energia berriztagarrien gorakadagatik. Berokuntzarako nahiz hozteko erabiltzen dira, eta ohikoak dira etxebizitza berrietan.

3. C gasolioa: Zenbait landa-eremutan edo gas naturala erabiltzeko aukerarik ez dagoen etxebizitza zaharretan dago oraindik.

4. Elektrizitatea (erradiadore elektrikoak eta zoru erradiatzaile elektrikoak): Asko erabiltzen da negu leunak dituzten eremuetan, hala nola Mediterraneoko kostaldean eta Kanariar Uhartean.

5. Pelletak eta biomasa: Familia bakarreko etxebizitzetan edo landa-etxebizitzetan erabiltzen dira,

duten eraginkortasunagatik eta ingurumen-inpaktu txikiagoagatik.

6. Butanoa edo propanoa: Gas naturalik ez dagoen lekuetan, oraindik ere berogailuak edo gas ontziratuko galdarak erabiltzen dira.

Gas naturalaren abantailak

Esan dugun bezala, oro har, gas naturala da hirietan gehien erabiltzen den aukera, eta landa-eremuetan eta eskualde hotzagoetan, berriz, beste aukera batzuk hazten ari dira, hala nola aerotermia eta biomasa.

Gas naturalak bero konstantea eta uniforme ematen du etxebizitza osoan. Erradiadoreekin eta zoru erradiatzailearekin bateragarria da, berokuntza eraginkorra ahalbidetzen duena. Butanoak edo propanoak ez bezala, ez duzu bonbonarik biltegitatu behar. Hornidura-sarera konektatuta dago, eta horrek etenak saihesten ditu. Kontsumoari dagokionez, gas naturala berokuntzarako elektrizitatea baino merkeagoa izaten da. Faktura energetikoan aurrezteko aukera ematen du, batez ere etxebizitza handietan. Gasolioa edo ikatza baino kutsadura txikiagoa sortzen du, CO₂ eta hondakin gutxiago sortzen baititu. Gainera, biometano eta gas berriztagarrien erabilerarekin osatzen ari da, haien eragina are gehiago murriztuz.

Kontsumo txikiko berogailu elektrikoak

Kontsumo txikiko berogailuak erabiltzerakoan, garrantzitsuena aurrezteko duten gaitasuna eta aurrezteko modu egokia baloratzea da.



Metagailuak erosi eta instalatzea nahiago badugu, ezinbestekoa da kontratatutako tarifa elektrikoa aztertzea. Aparatu horiek gaueko tarifaren kontratazioarekin funtzionatzeko diseinatuta daude bereziki. Horrela, elektrizitatea merkeagoa den orduetan kargatzen dute, eta nabarmen aurrezten dute faktura elektrikoa. Metagailuekin gertatzen den bezala, berokuntza elektriko gainerako gailuekin ere gertatzen da.

Garrantzitsua da, esan dugun bezala, tarifarik egokiena baloratzea, baina baita ekipoak behar bezala erabiltzea ere, programazio-aukerak aprobetxatuz, aurrezpena hobetzeko. Gaur egun, ekipo horietako askok, hala nola metagailuek eta igorgailuek, wifi aukera dute eta, beraz, wifi telefonogune baten bidez, edozein tokitatik programatu eta erabil ditzakegu. Horrela, kontsumoa minimora murrizteko aukera are gehiago indartzen da.

TAILERRA:
J.A. Gisasola, 4 AC

CLIMALITekin isolatzaile onena lortuko duzu akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

eta faxa: 943 20 39 03 info@crystaleriaacha.com

fonte.amana@gmail.com

AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEÑUA ORDINADOREZ ■ AIRE BOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

ARRIAGA SANEAMENDUAK

Saneamendua - Ur hotza eta beroa
Gasa - Kalefakzioa
Bainugelen erakusketa

943202034 - Arragueta, 2 bis A adm.arriaga@gmail.com

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637

Jardines Iturgintza

Jardiñeta, 11 B info@fontanerijardines.net

EtxeGi
ITURGINTZA

634 40 87 83
615 78 12 30
614 21 55 13

Pagaegi 1, erdisotoa
etxegi.iturgintza@gmail.com

imigas | GALDAREN BERRIKUSPENA ETA MANTENIMENDUA

943 17 07 00 - imigas.es - ERMUA

Kosner / Intergas / ACV / Brava / Tesolin / Fontecal
ZERBITZU TEKNIKOAK

ELEKTIBAR, S.L.U.

ELEKTRIZITATEA

JOSU BENGOA

PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

ERREFORMAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
ATE AUTOMATIKOAK
BERO URDINA

Indalezio Ojanguren, 2
943 70 05 42
electibar@gmail.com

Eskatu aurrekontuak konpromisoak gabe

Calbeton, 23
943 12 07 91

Azpiri

EIBAR • AMOREBIETA • DONOSTIA

Matsaria, 2
943 20 35 12



ASIER EZENARRO

Parthenope

Orain dela gutxi "Parthenope" ikusteko aukera izan nuen, Paolo Sorrentino zuzendariaren azken lana. Egia esanda, berandu iritsi naiz egile horren ekintzara. Bere garaian, gaztea nintzenez, asko gozatu nuen Bertolucci, Visconti edo Pontecorvoren italiar zinemarekin.

Zoritzarrez, telebistan ikusi nituen beraien filmak, hori astakeria izan arren. Baina aldi honetan pantaila haundira hurbildu naiz, eta hurrengo egunetan lagun eta ezagun askori gomendatu nien Sorrentinoren lan bikaina. Celeste Dalla Portaren edertasun liluragarriak txundituta uzten zaitu.

Lehenengo ordu erdian Dolce Gabbanaren iragarki baten aurrean zaudela dirudi, baina ondoren ohartzen zara ez zaudela moda ibiltoki bat ikusten. Oroimina, gaztetako maitasunak, intzestu harremana, edertasuna eta zatarkeria, Napoliko jende aberatsaren xarma eta hiri bazterraren txirotasuna eta zatarkeria, hori dena erakusten du Sorrentino maisuak.

Celeste Dalla Portaren aurpegiak zinema-pantaila betetzen du. Batzuetan Greziako mitologiatik atera den sirena bat dirudi, gizon guztiak liluratzen dituena, baina bera Antropologiako ikasle (eta irakasle) bikaina da, gizon bereziekin gustora sentitzen dena.

Pertsonaia bereziak aurkezten dizkigu zuzendari italiarrak: eroriak, dekadenteak, Napoliko mafia... Baina, nire ustez, pelikularen mamia denborarena da: zein bizkor pasatzen den denbora, eta heldutasunera iritsitakoan sortzen diren galderak. Ondo aprobetxatu ditut nire aukerak? Ingelesek badute esaera bat: "Bizitzan lehenengo berrogei urteak idatzia ematen dute, eta hurrengo berrogeiak iruzkina".

Parthenope olerki bat da zentzumenendako, baina horren alboan Sorrentinok nazkagarritasuna eta mina jarri ditu, eta harrিতa uzten gaitu. Stefania Sandrellik (Parthenope zaharra) bere bizitza zer izan den ikusten du Napoliko Golkoari begira, eta niri Bergamini olerki bat etorri zitzaidan burura: "Volver no es volver atrás. Yo no vuelvo atrás de nada". Egia?

Hemendik aurrera adi egongo naiz italiar horrek lan berri bat aurkezten duen bakoitzean, kalitatezko zinema eskaintzen baitu originaltasun falta hainbestekoa denean.

“Pelikularen mamia denborarena da: zein bizkor pasatzen den denbora, eta heldutasunera iritsitakoan sortzen diren galderak”

Gantxoak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du ...eta kitto!-k

Otsailaren 13an, egue-na, ilerako gantxoak egiten ikasteko tailerra egingo da ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu 11). Laura Albistegik (Gigil) gidatuko du saioa 18:30etik aurrera. Izen-ematea zabalik dago eta hainbat modu daude horretarako: ondoan duzuen QR-aren bidez, telefonoz (943200918) edo emailaz (elkartea@eta-kitto.eus). Izena emateak 7 euro balio du, 5 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat.



Barixakuak Jolasian Urkizun izango da gaur

Urkizuko parkeak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak, 17:00etatik 18:00etara, eta honekin amaituko dira urtarrilari dagozkionak. Otsailean berriro itzuliko dira jolasak auzoetara Txal-txa Zelaitik hasita (otsailak 7), Torrekuan egingo dira otsailaren 14an eta ikasturteko azkenak berriro egingo dira Urkizuko parkean (otsailak 21).



Play-Back lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

Aratosteetako Play-Back lehiaketan izena emateko epea zabaldu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. LHko 5. eta 6. mailetako ikasleei zuzenduta dago lehiaketa. Taldeak, asko jota, sei lagunez osatuko dira eta talde bakoitzak abesti bakarraren koreografia eta dantza egingo du. Jakina, abestiak euskaraz izango dira. Abestia MP3 formatuan grabatuko da eta taldearen izena, ikastetxea, abestia eta parte-hartzaileen datuekin batera bidaliko da banaketa@etakitto.eus helbidera otsailak 24 baino lehen. Hiru sari izango ditu lehiaketak, mozorro, interpretazio eta koreografia onenari, baina parte-hartzaile guztiek jasoko dute oparia. Martxoaren 2an, domeka, egingo da lehiaketa Errebal Plazan, 17:00etan, baina parte-hartzaileek 16:30erako egon beharko dute bertan.



Kalean da urtarrileko Txikitto!-ren alea

Urteko lehenengo alea eskoletan banatu du ...eta kitto!-k aste honetan eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztien eskuetan da, beraz, urtarrileko Txikitto!. Ohiko denborapasa, txiste, lehiaketa eta ipuinaz gain, oraingoan Iturburuko aitzitxa-bilobekin izan dugu solasaldia, eta La Salle ikastetxeko ikasleekin musika eta dantzari buruz jardun dugu berbetan.

Waterpolo jardunaldia hartuko du Orbea kiroldegiak domekan

Urbat-Urko tronik gure herriko waterpolo klubeko harrobikoan bi partiduz gozatzeko aukera izango dugu domekan, bata bestearen atzetik jokatuko diren bi partiduekin. Hasteko, infantil misto mailako Urbat eta Urgara Txingudiren artekoa jokatuko da 13:30etik aurrera; eta jarraian jubencil mailako Urbat eta WC Logroño taldekoen artekoa izango da, 14:45etik aurrera.

Aurrekoiez gain, talde nagusiko ordezkariek bi erronkei egin behar ko diete aurre asteburu honetan: gaur jokatuko den lehenengokoan, Euskal Herriko Koparen barruan, Laurori egingo diote bisita, 21:20an



abiatuko den norgehiagokan; bigarren erroka ez da makalagoa izango, bihar 20:15etik aurrera, Do-

nostiako Paco Yoldi igerilekuan, 2. Nazional Mailako partiduan, Poble Nou taldea hartu beharko baitute.

Mendi pixka bat egin eta sagardotegian amaitu: 22rako plana

Otsailaren 22rako Mandubian hasi eta Legorretan amaituko den ibilaldia prestu dute Deporrek mendi batzordekoek; tartean 868 metro-

ko Murumendi gainera pasatuko dira. Autobusa, ohikoari jarraituz, Ego Gainera aterako da 08:00etan, eta ustezko itzulera 18:00etarako

iragarri dute. Osatuko duten 17,6 kilometroko distantzian, goraka metatutako desnibela 675 metrokoa izango da, eta beherakoa 1.085koa. Autobusa eta bazkaria barne izango dituen prezioa 55 eurokoa izango da bazkideen kasuan, eta 65 eurokoa beste guztientzat. Begiristain sagardotegiko menuak honako osagaiak izango ditu: txorizo egosia, bakailao tortila, bakailaoa pil-pil eran, txuleta eta Idiazabal gazta, menbrillo eta intxaurrekin; ogia, ura eta sagardoa ere barne direla. Izen-ematea otsailaren 12an itxiko da eta bizkor ibiltzea komeni da, "plazak mugatuta daude-eta".



2023an ere kuadrilla polita bildu zen sagardotegiko mendi irteeran.

Eibar Rugbyk lidergoa galdu zuen Santboin erreka jo ostean

Ligako lehen fasea amaituta egon behar bazen ere, aurreko asteburuan jokatutako bere sasoiari atzeratu zen jardunaldiak sailkapena aldatu du eta, horrekin batera, baita eibartarrek lidergoa galtzea

ere. Unió Esportiva Santobianarekin 21-7 galdu zuten eibartarrek (denboraldiko lehenengoko porrota), atsedena dirala estu, 9-7, galtzen erretiratu ondoren. Porrot horrekin Turia-Les Abelles (15-12 galdu zuten

Eibarren aurka) da une honetan lider berria. Eibar Rugbyk bigarren postuan amaitu du fase hori eta Olimpico de Pozuelo hirugarren izan da: Turiak 30 puntu lortu ditu, Eibarrek 27 eta Pozuelok 26.

Afizionatuen mailako lau partidu hartuko ditu gaurkoan Astelena frontoiak

Gure herriko pilotariak protagonista izaten duen asteroko jaialdiak oraingoan, senior mailako bi neurketekin batera, kadete eta infantil mailakoak ere eskainiko ditu. Hasteko, Gipuzkoako Binakako Txapelketakoan, Saez-Oñederra Eibarko bikoteak Urretxuko Enrique-Lizarralde izango du aurrean. Beste hiru partiduak Gipuzkoako Udaberri Txapelketako laugarren jardunaldikoak izango dira. 1. Mailako senior kategorian, Klub Deportiboko Narvaiza-Agirresarobe eta Lasarteko Artetxe-Urdanpilleta izango dira, nor baino nor. Jarraian, kadeteetan, etxeko Gil-Varona bikoteak Lazkaoko Estensoro-Garmendiarekin neurtuko ditu indarrak. Amaitzeko, berriz ere seniorretan, Ibarra-Conde eta Oiartzungo Las-Salaverriaren artekoa ikusi ahal izango dugu.



Elkarrekin jokatu ez arren, Narvaiza eta Conde Astelena izango dira: aurrelaria bigarren partiduan eta atzelaria azkenekoan.

Ibarra-Conde bikote hori bere multzoko bigarren da une honetan, gomazko paleta modalitatean Lombrana eta Osa armaginak, partidu guztiak irabazita, euren multzoan dauden postu berean.

Aurtengo Itzulia Eibarren amaituko da apirilaren 12an, T. Etxebarria kalean

Aurten jokatuko den Itzulia Basque Countryaren 64. edizioa, azken urteetako bidetik, Eibarren amaituko da beste behin. Asteleheneetik zapa-



tura arte, sei etapak apirilaren 7tik 12ra arte jokatuko dira, eta gurean amaituko den azken etapa hori ere betiko bidetik joango da, Itzuliko erregina bihurtuta herriko erdigunean amaitzeko, T. Etxebarria kalean. Etapa guztietako ibilbideak oraindik konfirmatu gabe badaude ere (zehaztutako bideak hemendik gutxira aurkeztuko dituzte), badira hainbat herri irteerak eta helmugak hartuko dituztenak: Markina-Xemeinen eta Zarautzen amaituko direnekin, badirudi Beasainen hasiko dela beste bat; eta Iruñean hasi eta Lodosan amaitzekoa izan daiteke beste bat.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
Athletic - SD EIBAR (etzi, 12:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**
SD EIBAR - Deportivo (etzi, 16:15)
- Gizonezkoen 2. Maila RFEF**
SD EIBAR B - Real Sociedad C (etzi, 12:45)
- Emakumezkoen 2. Maila RFEF**
SD EIBAR B - Real Oviedo (bihar, 16:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
Pasaia - SD EIBAR C (bihar, 16:30)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
Bilbao Artizarrak - SD EIBAR C (etzi, 13:15)
- Erregionalako Gorengo Maila**
Amaika Bat - URKI (bihar, 16:30)
EIBARTARRAK - Lazkao (bihar, 18:30)
- Erregionalako 1. Maila (Kopa)**
Bergara B - URKI B (etzi, 18:00)
- Jubeniletako Ohorezko Maila**
SD EIBAR - Real Sociedad (bihar, 12:30)
- Jubeniletako Nazional Liga**
Barakaldo - SD EIBAR B (bihar, 19:00)
- Jubeniletako Euskal Liga**
URKI - Beasain (etzi, 18:00)
- Kadeteetako Euskal Liga**
Danok Bat - SD EIBAR (bihar, 13:00)

ARETO-FUTBOLA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
EIBARTARRAK - Izarraitz (bihar, 16:00)

ESKUBALOIA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**
MEK EIBAR - Loizaga (etzi, 12:00)
- Gizonezkoen 1. Nazional Maila**
Barakaldo - MEK EIBAR (bihar, 18:30)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Zarautz - MEK EIBAR B (bihar, 15:30)
- Gizonezkoen Lurraldeko Liga**
Donibane - MEK EIBAR B (etzi, 12:00)

FRRUGBIA

- Emakumezkoen Euskal Ligako 1. Maila**
Envas. Rioja - ARRASATE/EIBAR (etzi, 11:00)

SASKIBALOIA

- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
ARTES. JUANTXO - Aldapeta (bihar, 14:30)
- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Internacional Mons - EIBAR (etzi, 16:00)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
Zurrut - EIBAR B (etzi, 12:30)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Nazional Maila**
URBAT - Poble Nou (bihar, 20:15)
- Euskal Herriko Kopa**
Lauro - URBAT (gaur, 21:30)

XAKEA

- Gipuzkoako 1. Maila**
Arrasate Arlutz B - EIBAR A

Elene Arrazola inguruko azkarrena dugu distantzia motzetan

Azken bi asteburuetan jokaturako txapelketa biak bereganatu ditu Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak: aurrekoan Gipuzkoako txapela jantzi bazuen 16 urteko gazteak, oraingoan Euskadikoa ere jantzi du Elene Arrazolak 60 metroko lasterketa motzetan. Donostian jokaturako azken txapelketa horretan 7'70eko denbora egin zuen finalean, finalerdietan baino lau dezima gehiago; finalerdietan lortutako 7'66ko denborarekin bere marka pertsonala ezarri zuen. Maila bikaina ematen dihardu iaztik nazioarteko 18 urtetik beherako mailan lehiatzen duen Elenek.



Arrazola eibartarra Euskadiko txapela irabazten Donostian jokaturako proban.

Carmen Alvarez aurrelaria SD Eibarrera bueltatu da berriro

Salamancako aurrelaria denboraldi amaiera arte egongo da SD Eibarren, aurretik Betisen bi denboraldi eta erdi egin eta gero. Armaginen eraso indartzeko asmoz dator lehen ere Eibarren izandako jokalaria, 2020-21 denboraldian Atletico de Madrid taldeak lagata hona etorri eta, hamar partidutan bost gol lortuta, oso arrasto ona utzi zuelako. Ondoren Real Betis



Féminas taldeak fitxatu zuen eta Sevillako klubean izan da orain arteko kontratua eten arte. Aurrelaria Espainiako selekzioko beheko mailtako jokalaria izan da; ez hori bakarrik, 2022an Txekiar Errepublikan jokaturako 19 urtetik beherako Europako Txapelketa eta urte berean jokaturako 20 urtez azpiko Munduko Txapelketa ere irabazi baitzituen.

Eibar Igerixaneko ordezkariak A. Lopez eta Teknikazio Sarietan



Paula Calvo eta Xabat Limia izan dira gure herriko igeriketa taldea ordezkatu dutenak bi Sari horietan. Bartzelonako CN Sant Andreun jokaturako Alejandro Lopezen izena daramanaren 46. edizioan, Paula Calvok Gipuzkoako Federazioa ordezkatu zuen eta, beti erakusten duen maila emanik, parte hartu zuen lau probetatik hirutan domina bereganatu zuen. Zilarrezkoa irabazi zuen bizkar erako 200 me-

troko proban eta brontzekoa bizkar erako 100ekoan eta estiloetako 400ekoan.

Xabat Limiak, bestalde, Azpeitiko kiroldegian jokaturako alebin mailako Teknikazio Sarian hartu zuen parte, eta 2013an jaiotakoak bizkar erako 200ekoan (3.26.93) eta brazako (1.51.52) eta libre erako 100ekoetan lehiatu zuen. Azken proba horretan deskalkifikatu egin zuten irteeran aurreratu zelako.



Oporto Squash Master irabazita, Alberto Ferreiro Europako onenen artean dago

Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak Europako Zirkuituko beterranoen Portoko txapelketa irabazi zuen. Portugalekoa Europan jokatzen diren onenetako txapelketa da eta bertan 210 jokalaritik gora hartu zuten parte, hainbat mailatan banatuta. Bere mailako bigarren zerrendaburu zen eibartarra, eta aukera gutxi eman zizkien aurkari, joko bakarra galdu baitzuen. Final-laurdenetan frantziar bat kaleratu zuen, finalerdietan poloniar bat, eta finalean galiziar bati irabazi zion. Oporto Squash Master txapelketa hasi aurretik Deporrek ordezkaria Europako Rankingeko zortzigarren postuan bazegoen, bereganatutako lehiaketari esker seguruenik lehen bosten artean izango da gaur egun.


1. Maila Nazionaleko Mek Eibar Eskubaloia gero eta sendago goiko postuen bila

Azken bost jardunaldietan irabazi ondoren, Fernando Fernandezek zuzentzen duen taldeak hiru puntura du igoera fasean parte hartzeko aukera eskaintzen duen sailkapeneko bigarren postua. Denboraldi hasieran espero zena baino maila hobea ari da ematen Eibar Eskubaloiko gizonzkoen lehen taldea eta, Zumaian azken jardunaldian irabazitako moduak (18-31) erakusten duenez, taldea gero eta sendotasun

handiagoa doa hartzen. Batez ere defentsako lanean oinarritzen da bere jokoa, multzoko gol gutxien jaso duen taldea baita, erasoan seigarren onena den bitartean. Une honetan Mek Eibarrek 25 puntu ditu eta aurretik daude Anaitasuna liderra (31 puntu), Zaragoza (28) eta Romo (26). Bihar Barakaldoko Lasasarre kiroldegian jokaturako du, zortzigarren den bertako taldearen aurka.



Hodei Ezpeleta nagusi izan zen Kripango Binakako Aizkolari Txapelketan



Eibarko aizkolariak, atzetik aurrera eginez, indartsu amaitu zuen norgehiagoka.

Hodei Ezpeleta "Bihurri" eibartarra nagusitu zen aurreko asteburuaran Kripanen jokaturako Binakako Aizkolari Txapelketan. Arkaitz Etxebeste lagun zuela, Mikel Larrañaga eta Txomin Amundarainek osatutako bikoteari nagusitu zitzairen, azken lan-saioan zortzi segunduko atzerapenarekin abiatu ondoren. Atzetik aurrera eginez, azkenean 14 minutu eta 59 segundo behar izan zituzten garaileek euren lana amaitzeko, aurkari minutua eta zortzi segundoko aldea aterata: 13'59" irabazleek, 15'07" bestee.

“Eskuin muturra kapitalismoa salbatu nahi duen teknologia politikoa da”

JORDINA ARNAU • Kazetaria eta komunikatzailea



Faxismoaren eta eskuin muturraren gorakada bizi dugu gaur egun. Irudi, forma eta egiteko modu berriekin hartu du indarra, eta munduko pertsona aberatsenak guztion aurrean erromatarren agurra egin ondoren, beste pausu bat eman dutela iritzi du Jordina Arnau ‘Guia práctica contra l’extrema dreta’ (Eskuin muturraren aurkako gida praktikoa) liburuaren egileak.

Eibarko Ernaik gonbidatuta, martitzenean faxismoa eta eskuin muturra izan zituen mintzagai Euskal Herrian bizi den kazetari eta komunikatzaile kataluniarrak. Hainbat lagun elkartu ziren Arrate Kultur Elkartearen eskaini zuen hitzaldian eta adi jarraitu zuten Arnauk gaiari buruz esandakoak.

Momentu berezia bizi dugu gaur egun faxismoari eta eskuin muturrari dagokionez?

Gaur egun, nazioarte mailako fenomeno baten aurrean gaude, ezin daitekeelako eremu jakin batera mugatu. Estrategia bateratuak erabiltzen dituzte eta bere oinarrian mozorrotutako autoritarismo populista dago, besteak beste. Moduren batean hau beti egon da hor. Hau da, faxismo historikoa eta gaur egungo eskuin muturra lotzen dituzten hariak daude, baina gauza asko aldatu egin dira. DNAk jarraitu egin du, hari bat dago, baina aldatu egin dira euren komunikatzeko eta gauzak egiteko moduak, estetika... Adibidez, arrazismo biologikoaz edo kultura bateraezintasunaz egiten da berba orain, eta adierazpen askatasunaren lidertzat jartzen dute euren burua, hain justu ere adierazpen askatasuna suntsitzeko. Faxismo klasikoarekin lotzen

du ten haria gaur egun defendatzen dituzten gaietan ikusten da batez ere: “Hemengoa lehenengo” diote. Euren diskurtsoaren arabera beti dago beste batek baino eskubide gehiago dituen kolektibo bat, eta bere jatorriagatik, nazionalitateagatik edo gaitasun fisikoagatik pertsonak edo kolektiboak diskriminatzen dituzte.

Nola iritsi gara gaur egungo egoerara?

‘Fascio di combattimento’ (Benito Mussolinik sortutako erakunde politiko faxista) 1919an sortu zen, nahiko berria da historia guztiarekin alderatuz, baina II. Mundu Gerraren ondoren, hainbeste izan zen eragin zuen eskarmentu soziala, faxismoarekin edo eskuin muturrarekin zerikusia zuten gauzak baztertu egin zirela. Horren ondorioz, eskuin tradizionala hazi egin zen, baina eskuin muturra, trintxeratik, poliki-poliki, ondo pentsatutako eta planteatutako estrategia batekin, ezker mugimenduak egindakoa irakurri zuen, Antonio Gramscik planteatutako hegemonia moralaren kontzeptuaz jabetu zen, eta hegemonia lortzeko gakoa kaleko bataila kulturalean irabazten dela konturatu zen, ez erakundeez jabetuz. Beraz, eskuin muturraren helburu nagusia hedabideen agendetan eragitea bihurtu zen, horrela ahalik eta herritar gehienengana iristeko. Izan ere, herritarren kontsentsua irabazten



Martitzenean faxismoari eta eskuin muturrari buruzko hitzaldia eskaini zuen Arrate Kultur Elkartearen. EKHIBELAR

baduzu, erakundeetara iristea bermatzen duzu. 70. hamarkadan eman zen eskuin muturraren berregituraketa eta harrezkero gazteekin konektatzen joan ziren diskurtso alternatiboa erabiliz (“kasta politikoa”, “paga jasotzen dutenak”...). Establishmentaren alternatiba modura aurkezten dira, baina hain zuzen ere eskuin muturra da establishmenta. Hau da, eskuin muturra kapitalismoa salbatu nahi duen teknologia politikoa da. Gutxi batzuen pribilegioak defendatzen dituzte horrek gizartearen gehiengoaren miseria dakarren arren, baina eurek diskurtsoa guztiz itzultzeko gaitasuna dute. Funtzionatzen ez duen sozialdemokraziaren, politikoen gaitasun ezaren eta merezi ez duten soldata altuen alternatiba direla diote.

Gero, ostera, nola jokatzeko dute?

VOX, adibidez, inflazioaren eta energiaren prezioaren igoeraren aurka kalera irten arren, beti azaldu da energia publikoaren aurka. Horren guztiaren atzean poliki-poliki garatu den lan bat dago: ezkerak egiten duena aztertu dute; gizartearen haserre bideratzeko hainbat diskurtsoz jabetu dira; eta beraien formak, mezuak eta estetikak neutralizatu dituzte gizartearen

“Elon Muskek Donald Trumpen eskuin muturra finantzatu du eta ez du mundu guztiaren aurrean agur erromatarra egiteko arazorik”

onartuagoak izateko. Beraien kalkuluen arabera, 10 urteko gizarte-penetrazioa behar da aldaketak ezarri ahal izateko. Inurri-lana egin dute, baita inbertsio handia ere, eta hedabide ez tradizionalen laguntza jaso dute. Sare sozialen papera ezinbestekoa izan da. Enpresa pribatuak dira eta interes propioak dituzte (Elon Musk da horren adibide garbia). Horrela, algoritmoekin jokatzeko dute gorrotoa eta gizarte-konfrontazioak eragiten dituzten edukiak sarrituz. Hau guztia ez da kasualitate hutsa, ondo pentsatuta dago eta diru asko dago atzetik. Jair Bolsonaro hauteskundeak irabazi zituenean Brasil laga behar izan zuen Marcia Tiburi

ELKARRIZKETA
OSOIA

filosofoak esaten duen bezala: “Eskuin muturra kapitalismoaren zerbitzura dagoen teknologia politikoa da”. Kapitalismoak sistema publikoa murrizteko beharra du eta eskuin muturraren bitartez lortu dezake hori. Pribatizazioerantz jo nahi dute eta hori defendatzen du eskuin muturrak.

Poliki-poliki egindako lana eta finantzazioa aipatu dituzu, baina nortzuk daude horren atzean?

Inork ez du lan hori egiten duela lau haizetara adierazten, oraindik ere gizartean ez delako hain ondo ikusten. Dena dela, Donald Trumpen garaipenarekin eta Elon Muskek egin dituen adierazpenekin eta keinuekin esanenezake une erabakigarrian gaudela. Beste fase batean sartu gara. Elon Muskek, munduko pertsonarik aberatsenak, Trumpen eskuin muturra finantzatzen du eta ez du mundu guztiaren aurrean agur erromatarra egiteko arazorik. Berak dio mamuak ikusi ditugula, baina Ruth Ben-Giath historiadoreak esan bezala: “Sinbologia nazia da eta asmo guztiarekin egina”. Eskuin muturra nork finantzatzen duen galderari erantzunez, adibidez, Madrilén ISSEP izeneko institutua dago eta Marion Marechal-Le Pen du buru, Marinen Le Penen iloba. Javier Tebas futboleko Ligako presidentea, estatu espainiarrean aktibo dauden epaileak eta bestelako politikari (VOX, PP, Ciudadanos...), profesional eta akademikoak daude bertan. Lidergotzan eta komunikazioan oinarritzen den think tank bat da, eskuin mutur berriaren kuadro politikoak sortzeko. Ez da erraza horrelako mugimenduak atzematea eta haritik tira egin behar duzu, baina orain fase berri batean sartu gara eta ‘Overtonen leihoa’ mugitu egin da.

Zer da ‘Overtonen leihoa’?

‘Overtonen leihoaren’ barruan guk onartu ditzakegun marko sozialak daude. Eskuin muturraren nahia marko horiek mugitzea da, orain dela 10 urte onartezina zena gaur egun onargarria izateko. Adibidez, pentsa, Elon Muskek keinu bera orain dela 10 urte egingo balu, zer pasako litzateke? Mundu guztiak kondenatuko luke, baina eskuin tradizionalak ere. Orain, oster, ez gaude puntu horretan. Estatu espainiarrean arazo larriena ez



da VOX-en garaipen posiblea, oso zaila delako, baizik eta Partido Popularren voxifikazioa, indarra duelako. Eskuin tradizionala eskuin muturraren postulatuetara gerturatu dute.

Esan bezala, poliki-poliki gertatu den prozesua da, batzuetan ia oharkabean pasa dena. Nola laga dugu hau gertatzen?

Nahita edo nahi barik, ez da mugimendu horren inguruan berba asko egin eta banalizatu egin da. Sare sozialen bitartez ematen diren eredu komunikatibo berriek gezurrak, irainak eta horrelakoak zabaltzeko ahalmena eskaintzen dute, eta eskuin muturrak hori oso ondo aprobetxatzen du. Horrelako eduki ugari sortzen ditu eta zaila izaten da den-dena egiaztatzea. Egunero-egunero fidagarriak edo sinesgarriak diruditen albiste faltsu ugari igortzen dituzte. Horrek gizartean asko eragiten du. Are gehiago, Javier Negre eta horrelakoek nahiago duten albiste faltsuak sortzen jarraitu, horren ondorioz gero isunak ordaindu beharko dituzten arren. Izan ere, albiste faltsu bat botatzean oso azkar zabaltzen da eta oso zaila da atzera botatzea. Horrekin ezinezona sortzen dute, jendeari mezu hori igortzen diote eta hori hor geratzen da. Kaltea egina dago.



Herrian jarduten duten talde, elkarte eta eragile asko elkartu ziren aurkezpenean. SILBIA

JHH biziberritzen, ametsetako jaiak helburu

Jaixak Herrixak Herrixandakok prozesu parte-hartzailea burutu du, eta horren berri eman zuten barixakuan, Arrate Kultur Elkarte, herriko talde eta eragile ezberdinen aurrean. Ilusioaren Deiadarra: Jaixak Herrixak Herrixandako Biziberritzen deitu diote azken urtean taldean egin duten barne-hausnarketari, eta bertatik atera dituzten ondorioak aurkeztu dituzte orain.

Barne-hausnarketa egitera bultzatu dituen arrazoia azaldu nahi dute, beste ezer baino lehen: “Azken urteetan, Jaixak Herrixak Herrixandakoren dinamikan gero eta jende gutxiago ari zela ikusi dugu, baina herritarren parte-hartzea jaitsi dela ere: txosnetan txandak egiteko jende falta, egitarauan zehar laguntzeko prestutasun falta... Horiek adibide batzuk baino ez dira. Horrek, eta egitarau anbiziotsuak antolatzen jarraitu nahi izateak, ondorio latzak eragin dizkigu. Gero eta zailagoa da jai herriko, feminista, euskaldun eta parte-hartzaileak antolatzea”.

Barnera begira ipintzeko abiatu zuten prozesua: “Aurkezpena eta lau saio egin ditugu. Dinamika

ezberdinen bitartez, etorkizuneko jardunaz hausnartu dugu, testuinguruan kokatuz, eta sortu nahi dugun jai eredu euskaldun, parte-hartzaile, herriko eta feminista praktikara eramanez”.

Atera dituzten ondorioen artean, auzolanaren gainbehera nabarmendu dute: “Ekitaldiak geroz eta jendetsuagoak izan arren, antolakuntza gero eta gutxiago izan gara, egoera jasangaitza bihurtu arte. Eibarko gazterian potentzial handia ikusten dugu, baina parte-hartzea eta konpromisoa landu behar ditugu, gure lanean ezinbestekoa den auzolanaren kultura sustatu”.

Ahulgune batzuk ere identifikatu dituzte: “Kontsumora eta

gaueko parrandara bideratutako egitarauak nagusitu dira, giro erdaldunean ematen direnak, eta espazioak politizatzeo aukerak kentzen dizkigutenak. Adinartekotasuna eta kulturartekotasuna faltan botatzen ditugu, baita herriko eragile eta elkarte ezberdinekin elkarlana ere. Eta, horrez gain, espazio fisiko baten beharra daukagu, bai txosnagunearentzat, baita JHHren barne antolakuntzarako ere. Jai herrikoioak nahi ditugu eta, horretarako, funtsezkoa da eguneko egitarauari buelta bat ematea”.

Herriko eragile eta talde guztiak inplikatzeko premia

Lehen pauso modura, jaien antolaketan ekarpenak egiteko modu berriak bilatu dituzte, JHH-ren izaera asanblearioari uko egin barik: “JHHren egituraren eta jaien antolaketaren oinarria herriko elkarte, eragile, eta norbanako-taldeek osatzeko apustua egin dugu. Jaien antolaketara herrikoioa izateko, herrian jarduten duten talde ezberdinen inplikazioa zuzena beharrezkoa da. Beraz, JHHren jarduna jaien koordinazio-espazioa izatera mugatuko da”. Talde horiek proiektura erakartzea, hori da aurretik daukaten erronka, baina kementsu hasi dira: “Badugu herria, badugu egitasmoa, eta badugu bidea gure ametsetako jai herrikoietara ailegatzeko. Herriko eta herriarentzat egiten dugu lan. Orain inoiz baino gehiago, animatu eta parte hartu!”.

Aurkezpenaren bideoa gure YouTube kanalean dago ikusgai





“La Blues Company” taldearen kontzertua otsaileko Musika Klubean

Eibarko Kulturak antolatzen duen Musika Klubearen eskutik, *La Blues Company* taldearen kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak datorren barixakuan (otsailak 7), 19:00etan hasita. Nāco Goñi (armonika), Paul San Martin (pianoa, ahotsa), Edu Bighands (gitarra, ahotsa), Fernando Beiztegui (gitarra, ahotsa) eta Marti Elias (bateria) musikoei osatzen dute taldea, eta antolatzaileen arabera, “*La Blues Company*-ren lehen lanak aise betetzen ditu erreferentziatzko disko bihurtzeko behar diren baldintza guztiak. Zuzeneko lana da, oktanaje handikoa, usadio zaharrari jarraituz eta musikari mitiko batzuen nortasun paregabearekin egina”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Goi Argi emakume elkarteak sanblas lehiaketa antolatu du

Domekan, San Blas egunaren bezperan egingo du Goi Argi elkarteak lehiaketa, bazkideen artean sanblasik onena nork egiten duen aukeratzeko. Oso sukaldari onak daudela diote, beraz leiha bizia izango da.



‘Zainak eman’ aurkeztuko du Olatz Salvadorrek

Olatz Salvadorrek hamar urte baino gehiago daratza musikaren munduan murgilduta, eta hamaika proiektutan hartu du parte: oso ezagunak diren artistekin (Rosalía, Rozalen, Kiko Veneno, Ariel Rot, Ivan Ferreiro eta beste askorekin) kolaborazioak egin ditu, soinu-bandak konposatu eta ekoiztu ditu, eta gaur egun bakarkako bere proiektuarekin ari da buru-belarri lanean. Eibarrera *Zainak eman*, bere hirugarren albuma dena aurkeztera dator. Otsailaren 14an emango du kontzertua, Coliseo antzokian, 19:00etatik aurrera, eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Aratosteetako lehiaketetan parte hartzeko izen-ematea

Aratosteak gerturatzen ari direla eta, azken urteotan bezala, aurrean ere jaietarako lehiaketak antolatu ditu Eibarko Kulturak. Batetik, horren harrera ona izaten duen koadrilen kalejira-lehiaketa egingo da. Eta, bestetik, herria girotzeko asmoz, ostalari guztiak animatu nahi dituzte ondoen apaindutako taberna lehiaketan parte hartzera. Batean zein bestean izena emateko epea datorren barixakuan (otsailak 10) zabalduko dute, eta otsailaren 24an itxiko da.



“Goiatz Dutto&friends”, bihar 20:00etan Zaizoin

Moonshine Wagon taldearen arima den Goiatz Duttok bakarkako proiektua sortu du, bere kantutegi eta guzti, “bizitza eta birra alaitzeko”. Bere eskuetan munizio astuna diren gitarra, mandolina eta biolinaz armaturik, entzutera doazen guztiari hegan egitea eragingo diela diote bere musika ondo ezagutzen dutenek: “Looper pedal baten bidez, instrumentu desberdinekin geruzak sortzen joaten da, banda osoa bailitzan jo arte, agertokian bera bakarrik egon arren”.



Eibarko Musika Bandaren kontzertua domekan

Domekan emango du 2025eko lehen kontzertua Eibarko Musika Bandak, Coliseo antzokian, 12:30ean. Andoni Vazquez Santos zuzendariaren berbetan, “gustu guztietarako ikuskizuna izango da. Pasodoblea, zarzuela, kantata, zinema-musika... entzun ahal izango dira”. Bandak *Angel Peralta* (M. Nuñez eta M. Catos) pasodoblea, *El barberillo de Lavapies* (Barbieri) zarzuela, *Carmina Burana* (Carl Orff) kantata, *Star Wars: The Force Awakens* (J. Williams) pelikularen musika-bandaren bertsio “oso polita” eta *Mambo greats* (Arr. S. Bulla) moldaketa joko ditu.



Akuarela tailerra emango dute otsailean Ipuruan

Eibarko Artisten Elkarteko Santi Entrenaren eskutik, otsailean akuarela tailerra egingo da Ipuruko Merkatu Plazan. Beste batzuetan bezala, parte-hartzaileek ez dute ezer ordaindu behar, baina bakoitzak bere materiala eramateko eskatu dute. Tailerra otsailaren 15ean izango da, 11:00etatik 14:00etara.

Hasi da ‘Egunean Behin’ joko arrakastatsuen 17. denboraldia

Euskaraldia euskararen erabilera aktibatzeko mugimendu sozialak lagunduta, urtarilaren 27an abiatu da *Egunean Behin* jokoa 17. denboraldia. Hamar asteetan egunero partida bat jolasteko aukera emango du, egunero hamar galdera ahalik eta azkarren erantzuteko. Beste batzuetan bezala, astero sariak banatuko dituzte: denboraldiko lehenarentzat, telebista; bigarren eta hirugarren sailkatzen direnentzat, telefono bana; eta, zozketaz, aurikularrak. Orain dela sei urte plazaratu zuen CodeSyntax enpresa eibartarrak mugikorrerako galdera erantzunen joko ezaguna, eta azken denboraldian 65.000 parte-hartzaile izan zituen, 230.000 jokalaria denboraldi guztiak batuz gero.




San Blas tailerra egingo dute Indianokua gaztelekuan


San Blas opilak nola egin ikasi nahi duten gazteen-tzat tailerra eskainiko dute Indianokua gaztelekuan, otsailaren 8an (zapatua). Interesa izanez gero, bertan galdetuta emango dizkizute zehaztasun guztiak. Izen-ematea otsailaren 7ra arte egin daiteke.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

7	4	6		9	
6		1		8	
8					
	9			6	2
	7	6	3	4	9
3	5			4	
					9
2			3		7
4		9	2	1	



soluzioa



soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

2	1		7	3	
9		1			6
7	4	2	3	5	
		5			
3	9	6	2	5	7
			9		
	9	3	5	1	2
4			1		9
	2	4		7	5

S
U
D
O
K
U

AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ETA HEMEN BESTE 4



Urtarrilak 31 - Otsailak 6

BARIXAKUA 31

ANTZERKIRAKO SARRERAK

17:30/19:30 Aldez aurretiko hitzorduen banaketa. Coliseo antzokia.

MAGIA

18:30 "Magia parrastan" ikuskizuna, Imanol Ituiñoren eskutik. Doan (gonbidapenarekin). Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Coliseo antzokia.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:30/21:30 Lekim konpainiako aktoreak kalez-kale ibiliko dira, Eibarko Antzerki Jardunaldiak aurkezten.

ZAPATUA 1

ANTZERKIRAKO SARRERAK

10:00 Eibarko Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrealmenta, hitzorduaren arabera. Coliseoko leihatila.

EIBARKO INDEPENDENTZIA EGUNA

10:00 Frontenis txapelketa +kamiseta tailerra. Legarreko frontoia.
14:30 Bazkaria.
16:00 Bazkalostea.
20:00 Pintxada DJ Zerna(h) i + Aroztegiko auzipetuekin elkartasun-argazkia. Depor.

ATE IREKIAK

10:30/13:30 Ate-irekien jardunaldia. Tailerrak, ipuin-kontalaria, egurrezko jolasak, puzgarriak... Sarrera librea. Amaña herri ikastetxea.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 Astelena Haur Parkea. Astelena frontoia.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30/14:30 Lekim konpainiako aktoreak kalez-kale ibiliko dira, Eibarko Antzerki Jardunaldiak aurkezten.

ATE IREKIAK

16:30/19:30 Ate-irekien jardunaldia. Jolasak, ikasleen erakustaldiak, tailerrak... San Andres herri ikastetxea.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

20:00 Kontzertua, Goiaz Dutto&friends-en eskutik. Doan. Zaizoi/EzDok.

DOMEKA 2

ANTZERKIRAKO SARRERAK

10:00 Eibarko Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrealmenta, hitzorduaren arabera. Coliseoko leihatila.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan. Coliseo antzokia.



ANTZERKI JARDUNALDIAK

12:30/14:30 Lekim konpainiako aktoreak kalez-kale ibiliko dira, Eibarko Antzerki Jardunaldiak aurkezten.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabiltzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinak Ipuruan. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 3

ANTZERKIRAKO SARRERAK

10:00 Eibarko Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrealmenta, hitzorduaren arabera. Coliseoko leihatila.

SAN BLAS

10:30 San Blas opilen bedeinkapena, San Jose Obrero elizan (Urki).
11:00 Bedeinkapena, Karmengo Amaren elizan eta San Pio X.a elizan.
12:00 Bedeinkapena, El Salvador elizan (Amaña).
18:00 Meza eta bedeinkapena, San Agustin elizan.
19:00 Meza eta bedeinkapena, Karmengo Amaren eliza.

ATE IREKIAK

12:30/13:30 Ate-irekien jardunaldiak aste osoan, astelehenetik barixakura arte. Urkizu ikastetxea.

EGUAZTENA 5

MENDI-IBILIAK

09:15 Mendi-ibilaldia Ikasten elkartearen eskutik: Landa-Gasteiz. Ego-Gain.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko Borondateen Dokumentuari buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

EGUENA 6

HITZALDIA

10:00 "Seigarren kontinentea: ikusten ez duten begiak", Inmaculada Mugerza Perelloren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 31ra arte: - "Baltiko" JOSE LUIS IRIGOIENen argazkiak. (Portalea).

Otsailaren 16ra arte: - "Ibilian jarraitzea" ANTON HURTADOn pintura erakusketa. (Portalea).

Martxoaren 30era arte: - "EIBARKO ITSAS ABENTURA". (Eibarko Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 3tik apirilaren 29ra: - "BIZITZA ONERAKO ALTERNATIBAK" erakusketa. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **1ean:** 19:45, 22:30
- **2an:** 20:00
- **3an:** 19:30

“Las vidas de Sing Sing”
DRAMA



2023/AEB/105'
Zuzendaria: Greg Kwedar
Protagonista: Colman Domingo, Clarence Maclin, Sean Blackman
Errealitatean oinarria / Antzerkia

2 ARETOA

- **1ean:** 19:45, 22:30
- **2an:** 20:00
- **3an:** 19:30

“Cómo hacerse millonario”
KOMEDIA



2024/Tailandia/126'
Zuzendaria: Pat Boonitipat
Protagonista: Putthipong, Usha Seamkhum, Sanya Kunahorn
Gaixotasuna / Herentzia / Amama

ANTZOKIA

- **1ean:** 16:30, 19:15, 22:30
- **2an:** 16:30 (1. Aretoa), 20:00
- **3an:** 19:30

“Corazones rotos”
DRAMA




2024/Frantzia/166'
Zuzendaria: Gilles Lellouche
Aktoreak: Adèle Exarchopoulos, François Civil, Vincent Lacoste
Thriller/Erromantzea

ANTZOKIA

- **1ean:** 17:00
- **2an:** 17:00

“Flow. Un mundo que salvar”
ANIMAZIOA



2024/Letonia/83'
Zuzendaria: Gints Zilbalodis
Abenturak/Animaliak/ Zine familiarra



2 ARETOA

- **1ean:** 17:00
- **2an:** 17:00

“Itoiz udako sesioak”
DOKUMENTALA

2024/Euskal Herria/102'
Zuzendaria: Larraitzuazo,
Zuri Goikoetxea eta Ainhoa Andraka
Musika taldearen ingurukoa

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **ARATZ**, hillaren 25ian 5 urte bete zenuzuen eta. Eskerrik asko bost urte bete zorion oparitzarren!



Zorionak, **NAHIA**, atzo 7 urte bete zenuzuen eta. Patxo haundi bat etxequon partez.



Zorionak, **MIKEL!!** Domekan urtetxua beteko dozu eta. Musu haundi bat zure famelixaren partez. Askoi maite zaittugu.



Zorionak, **NERE**, otsailaren 5ian 8 urte beteko dozu eta. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Liberen partez.



Zorionak, **UXUE**, printzesa! Atzo 10 urte bete zenuzuen eta. Musuak famelixaren eta, batez be, lbaitxoren partez!



Zorionak, **MARTINA**, Hurtado Mayo, eguaztenian 3 urte bete zenuzuen eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **OIHANA**, otsailaren 5ian 11 urte beteko dozuz eta. Musu bat etxekuen partez. Jarraitu holakua izaten.

DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 | 943 94 49 17 | deportaberna@deporreibar.com

- EGUNEKO MENUA astleheneetik ostiralera 13:00etatik 15:00etara
- ASTEBURUETAN razioak, olartekoak, plater konbinatuak...
- GOSARIAK egunero
- TALDEENTZAKO menuak egiten dira

EBARRO HEZKUNTZA ESKOLA OFIZIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

Otsailaren 3tik 10era
MATRIKULA LIBREA
(EGUAGTARIA LORTZEKO AZTERKETA DEIALDIA)

BERRITASUNA!!
ENGLISH
EUSKARA
DEUTSCH
FRANÇAIS

Argibide gehiago:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net

36'18€ EUSKARA C1 MAILA

Matrikula epea: Otsailaren 3tik 14ra
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH
Informazioa eta zuzeneko bisitak
lasalleibar.eus
943202133 | 943121698

La Salle

www.aldatze.eus

ALDATZE DENOK GARA
MATRIKULA -IZEN EMATEA-
otsailaren 3tik 14ra

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Abontzan. 625071888.

3.2. Errentan

- Lokala edo garaje bikoitz itxia hartuko nuek alokairuan. 631092003.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Eibarko neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaindu eta ikastolako etxeko lanak egiten laguntzeko. 617 804844. Elene.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauze eta ospitalean ere. 632844780.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 639107272.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 602626391.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta interna bezala ere. 642852854.
- Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 632708954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. 617571210. Amaia.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste lanetarako. 603334249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko. 638421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuan ere. Interna. 642044618.

- Neska eskaintzen da erizain-laguntzaile bezala edo kamarrera jarduteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuan ere. Interna. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da, nagusiak zaintzeko (soziosanitario laguntzaile ziurtagiria) eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. 632415374.

4.2. Langile bila

- Durangoko hortz-klinika batek higienista behar du. Jardunaldia adosteko. Interesatuak bidali CVa: rrrhpersonal.clinicadental@gmail.com
- Emakume arduratsua behar da nagusiak zaintzeko Soraluzen. Esperientzia baloratuko da. Asteazken 20 ordu: astelehene ostiralera 3 ordu arratsalde eta larunbatetan lanaldi zaitua. 666629274.
- Odontologo orokorra behar da Mendaroko Hortz Klinikak batean. Jardun partziala adosteko. Euskaraz jakitea eta odontopediatrian ezagutzak izatea baloratuko da. CV-a: odonto2025@gmail.com
- Ileapaintzailea behar da Elgoibarren. Jardun erdirako edo osorako. 634261485.
- Laguntzailea behar dut bulego lanetan laguntzeko. luen-go41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Binilozko LPak eta singleak erosiko nituzke. Baita 1985era arteko Euskal Herriko dantzalekuetako pegatina, poxpolokaxa, posabaso eta sarrerak ere. 688624326.

6.2. Eman

- Bainauntzirako aulki birakaria oparitzen da. 615761830.
- Dormideo etxeko koltxoia eta tapiflexa (1,35x1,90) oparitzen dira. 680145248.

ONGI ETORRI



✓ Programa honen bidez, **elkarbizitza eta kultur-aniztasuna** landuko ditugu, **euskaratik eta euskal kulturatik**. Lagungarria izango da etxeko hizkuntza euskara ez den kasuetan zuen **seme-alaben etorkizuna euskaraz ere izan dadin**.

✓ Es el programa en el que trabajamos **la convivencia y la diversidad cultural, desde la perspectiva del euskera y nuestra cultura**. Entre otros aspectos, **ayudará a que el futuro de vuestros hijos/as sea también en euskera**.

✓ Is the programme in which we work on **coexistence and cultural diversity, from the perspective of the Basque language and culture**. Among other aspects, it will **help to ensure that your children's future will also be in Basque**.

✓ Est le programme dans lequel nous travaillons sur la **coexistence et la diversité culturelle, du point de vue de la langue basque et sa culture**. Cela contribuera, entre autres, à que **l'avenir de vos enfants soit aussi en basque**.

✓ إنه البرنامج الذي نعمل فيه على التعايش والتنوع الثقافي من خلال منظومه وثقافته الباسك، من بين جوانب أخرى سوف يساعد مستقبل أطفالك في لغة الباسك



Doan!

ASTELEHENA: *Ipurua* 14:30-16:00
 ASTEARTEA: *Amaña* 14:30-16:00
 ASTEAZKENA: *Urkizu* 14:30-16:00
 OSTEGUNA: *Urki* 14:30-16:00

¡Gratis!

Aurrematrikulak

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Otsailaren 3tik 14ra



URRIZTU 943 89 91 47



SAN ANDRES 943 20 79 95



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



AMAÑA 688 68 72 89

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Toki hau ikasteko,
deskubritzeko eta etorkizunerantz
hazteko leku magiko bat da.
Etorriko?

AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA

Otsailaren 3tik 14ra zabalik

AURREMATRIKULA ONLINE
www.euskadi.eus/hezkuntza/

EUSKO JAURJARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA GAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



EIBAR BHI 943 89 92 62
JARDINETZA, 3 B www.eibarbhi.eus
DBH 3, 4 + Batzilegoak + ZIG



EIBAR BHI 943 89 92 21
ISASI, 37 www.eibarbhi.eus
DBH1, 2 + Gautenako gela orokorra